

Bidezidor biribila Atxarre mendiaren inguruan, Urdaibaiko ekosistema interesgarriaren batean, batzuk ezagutzeko aproposa, hala nola artadi kantauriarra, Akordako landazabala edo kostaldeko itsasertza eta hondartzak.

Atxarreko bidezidor biribilak aukera eskaintzen digu Bizkaiko baso erakargarriaren eta barneraezinen batean barneratzeko, Kanalatik abiatuta San Martin ermitaren ondok igarotzen den bidezidor batean barrena. Artadiko landare-errezel betiere berdean irekitako pasagune batean gora egiten du bidezidorrak, substratu karstikoa behin eta berriz azaleratzen den gunean. Baso nahasia ezkerrean eta eskuinaldean altxatzen da.

Pasagunetik jarraituz, Dantzalekuko bidegurutzera iritsiko gara, sorginen jaietarako bilgunea sinesmen zaharren arabera. Atxarreko gailurrerainoko desbideratzea abiatzen da bertan, eta gailur hori bisitatzeko merezi du benetan. Izan ere, talaia horretara iritsita Urdaibaiko paisaiaren zati handi bat ikus daiteke.

Dantzalekura bueltan, bidezidorrak artadi kantauriarrean barrena egiten du aurrera Akordarako bidean, gartzainondo zahar batzuen ondok.

Akorda, Gametxo eta Antzora auzoetan baserri bikain ugari gorde dira, baita baserri lotutako beste zenbait elementu interesgarri ere (ermitak, iturriak, ikuztegiak, txakolin-bide zaharrak...).

Bidezidorraren estuarioan aurkitzen dugu alderik erakargarriena, kostaldeko paisaia zoragarria batik bat, hondartzak eta guzti.

Arketako kanpinetik eta ontzirezalekutik igaro ondoren, Kanalara itzultzen da bidezidorra, bide zahar batean barrena.

## Informazioa

Turismo bulegoak:

- Gernika-Lumo..... 94 625 58 92
- Bermeo ..... 94 617 91 54
- Mundaka ..... 94 617 72 01

Garraio publikoa:

- Bizkaibus ..... 946 125 555
- Euskotren ..... 902 54 32 10



Urdaibaiko Biosfera  
Erreserbako Patronatua  
Madariaga dorretxea  
94 403 23 60

## atxarre (312m)

Iristeko moduko gailur hau Urdaibaiko talaia onenetako bat da. Biosferako Erreserbaren paisaien aberastasunaz goza dezakegu hemen, eta bereziki Okaren estuarioa, kostaldeko herriak, hondartzak eta artadi kantauriar zoragarria nabarmendu behar dira.



## artadi kantauriarra

Barnera zaitetz Bizkaiko artadi kantauriarren zabalgunen handienetako batean. Flora eta fauna interesgarria gorde du baso barneraezina, konplexua bezain ederra den sistema karstiko baten gainean. Artea da bertako espezie nagusia, eta artearekin batera gurbitzak, ereinotzak, urkiak, txorbeltzak eta beste zenbait espezie ikus ditzake bisitariak.

Basoaren barruan, berriz, basurde, orkatz, azkor eta katajinetek aurkitzen dute babesa eta janaria.

artadiaren bihotzaren erdian

**8,4 Km - 2 ordu 45'**

## fitxa teknikoa

- Ibilbidearen hasiera/amaiera: Kanala (Parking)
- Ibilbidearen luzera: 8,4 km
- Gehienezko malda: 220 m
- Denbora (g.g. b.): 2 ordu 45'


Gomendioak:

- Honako noranzko hau gomendatzen da: Kanala-Atxarre-Akorda-Gametxo-Laida- Arketa-Kanala

- Beste abiapuntu posible bat: Akorda, Gametxo eta Laida.

- Txikienezko gomendatzen dizuegu Akorda auzotik Atxarrera igotzea.

• Ibilbidearen perfila:



## MIDE

Bideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da, 1etik 5era, txikienetik handienara doazen zailtasun balioekin.

- |   |  |           |   |  |                |
|---|--|-----------|---|--|----------------|
| 1 |  | Ingurunea | 2 |  | Desplazamendua |
| 2 |  | Ibilbidea | 2 |  | Esfortzua      |

Gogoratu

- |  |                                    |  |                                 |
|--|------------------------------------|--|---------------------------------|
|  | Ondo prestatu txangoa              |  | Utzi baketan inguruko animaliak |
|  | Gogoratu prismatikoak hartzea      |  | Ez hartu lorerik                |
|  | Utzi atakak aurkatu dituzun moduan |  | Ez bola zaborrik                |

Akordako auzoa






Arketako ontzirezalekua



Homologatutako ibilbideak. Sinbologia.

PR®			
	Zidorraren jarraipena	Norabide aldaketa	Okerreko norabidea

	Mendiko ibilbide laburra (PR)
	Mendiko ibilbide luzea (GR)
	Interesguneetara desbiderapenak

**laida - laga**



Legendikako Santa Maria

Ibarrangeluk Urdaibaiko hondartza onenetako bi dauzka, Laida eta Laga. Urdaibaiko estuarioaren bokalean, Laidako hondartza itsasoaren egoeraren eragipean egoten da beti, eta horregatik pairatzen ditu etengabeko aldatketak.

Ibilbidetik desbideratuz Lagako hondartzara iritsi gaitzke; Bizkaiko hondartza ederrenetako bat da, eta Ogoñoako haitzaren babespean dago.

**Ikurrak**

	Abiapuntua		Natura 2000 sarea
	Aparkalekua		Iturria
	Eliza		Atsedenekua
	Ermita		Garraio publikoa
	Gailurra		Ostatua
	Ikuspegi panoramikoa		Taberna-jatetxea

